

IKASLE GARRAIATU ETA FAMILIENDAKO INFORMAZIOA

Oraingo honetan 2018-2019 ikasturterako garraio-ibilbideen berri bidaltzen dizuegu:

- **Ibilbideak eta herriak:**

IBILBIDEAK	HERRIAK	IKASLERIA
Ibilbidea 1	Gares (DBHko 2. eta 3. DBH)	DBHko 2. eta 3. mailako ikasleak.
Ibilbidea 2	Gares (DBHko 1. eta 4. maila eta Batxilergoa).	DBHko 1. eta 4. mailako, eta Batxilergoko ikasleak.
Ibilbidea 3	Zirauki, Mañeru, Gares (Etxarrentxulo, Sarria eta Artazu)*, eta Mendigorria eta Artaxoa	DBH eta Batxilergoa. Etxarrentxulo, Sarria eta Artazu, eta Mendigorria eta Artaxoako ikasleek autobusa Garesen hartuko dute.
Ibilbidea 4	Añorbe, Ukar, Eneritz, Adios eta Zarikiegi.	DBH eta Batxilergoa
Ibilbidea 5	Barbatain, Zizur Txikia eta Etxabakoitz.	DBH eta Batxilergoa
Ibilbidea 6	Beraskoain, Arraitza eta Zabaltza.	DBH eta Batxilergoa
Ibilbidea 7	Ubani, Otazu, Larraia, eta Gazolatza.	DBH eta Batxilergoa
Ibilbidea 8	Legarda, Obanos, Muruzabal eta Uterga.	DBH eta Batxilergoa
Ibilbidea 9	Undio, Asterain, Muru-Asterain eta Baternain.	DBH eta Batxilergoa
Ibilbidea 10	Subitza, Arlegi, Galarko Espartza eta Galar.	DBH eta Batxilergoa
Taxi*	Etxarrentxulo, Sarria eta Artazu.	DBH eta Batxilergoa

- **Garraio txartelak:**

Garraio-txartela ikasle garraiatu bakoitzari eskura emango zaio. Bertan ikaslearen izena, dagokion autobusa eta eserlekuaren zenbakia agertzen dira. Txartela egunero eramatea komenigarria da, noizbait gidariak eskatzen ahal duelako. **Autobusean portaera txarrak garraio-eskubidea galtzea ekar lezake.**

- **Oharrak:**

Berez, 7:50h eta 8:00 bitartean ailegatuko dira autobusak institutura.

Lehenengo egunean, geldialdian puntualtasunez egotea eskatzen zaizue. Hurrengo egunetan doituko da ordutegia eta ikasleek itxoi ten eman beharreko denbora bidezkoa izatera pasako da.

Datorren irailaren 11an, asteartea, arratsaldeko 6etan, institutuan, batxilergoko ikasleen gurasoei garraioa eta gastuei buruzko bilerara deitzen dizuegu.

Ikastetxeko garraioaren arduraduna: Patxi Ozkoidi.

Ikastetxearen Telefonoa: 848 43 06 60. Ikastetxearen Faxa: 848 43 06 88.

Posta elektronikoa: ieszizur.vicedireccion@educacion.navarra.es

- ◆ **Ordutegi bereziak irailaren 7an (kurtso hasierako eguna) eta irailaren 12an:**

Irailaren 7an autobusak 10:00etan iritsiko dira institutura eta itzulera 12:00ean izanen da. Ikasleek ikasturte arruntean darabilten denbora aurrealde berberarekin ohiko geltokietan egon behar dira.

Irailaren 12an, Zizurko jaien hasiera, autobusak 10:45ean itzuliko dira institututik.

Edozein zalantza edo iradokizun izanez gero, ikastetxean aurkituko gaituzue.

Adeitasunez.